

**Bideoaren erreferentzia:** Bagoaz A1B02

**Maila:** A1

**Helburua:** Ezagunen artean, erabaki bat hartu eta horren arrazoiak era sinplean ahoz adierazteko gai izatea eta baita besteek adierazitakoa ulertzeko ere.

**Funtzioa:** Erabaki bat hartu eta horren arabera, egingo dena adierazi, arrazoiak emanaz.

**Azken ekintza:** Alokatzeko pisu egokia aukeratu eta denen aurrean zein den adieraztea, arrazoiak emanaz; entzun dutenek erabaki eta arrazoi horiek zeintzuk diren esango dute.

**Adierazpide linguistikoak:**

- Aditza geroaldian
- Zenbait esapide
- Lexikoa: Etxea deskribatzeko oinarrizko hiztegia; etxeari loturiko hiztegi orokorra, proposamenari erantzuteko eta zalantza adierazteko zenbait esapide: *horrela, bat-batean! Aukera ona da...*

## 1- IKUSI AURRETIK

### 1.1 Hau bai ikasleen pisua!

Ikasleen pisuak izaten dituen ezaugarriak erreparatzeko eskatuko diegu. Hiru etxebizitza-mota irudikatzen dituzten 3 argazki eta horien deskribapen laburrak emango dizkiegu. Identifikatu dezatela zein den ikasleen pisua.

Ondoren, denen artean, etxe horiek deskribatzeko bururatsen zaizkien adjektiboak idatziko dituzte. Ikasleen pisuak nolakoak diren ere esan dezatela. Esan azken atazan beharbada adjektibo horietako batzuk erabiltzea egokituko zaiela. Irudiekin batera honelako adibideak emango dizkiegu: **Zaharra eta ilun-xamarra da gela. Altzariak egurrezkoak dira.**

## 2- IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Ikasleen pisu tipikoa?

Bideoaren lehen zatia entzun bitartean, etxearen ezaugarri orokorrei erreparatzeko eskatuko diegu. Horretarako, bi galderari erantzun zuzenak eman, erantzun zuzena aukeratu. Hemen erantzun zuzenak:

Josu nolako etxean bizi da?

- **Etxe zaharra eta handia da: bost gela eder ditu.**

Josuren etxean zenbat lagun bizi dira?

- **Bost lagun bizi dira: Josu, beste bi mutil eta bi neska**

Ondoren, erantzunak adostu ditzatela. Aukera moduan: ahoz esan dezatela ea bideoan deskribatzen den pisua ikasleen pisu tipikoa iruditzen zaien, eta zein diren aldeak.

### 2.2 Gure pisuan bai ondo!

Bideoaren azken zatia entzun bitartean, erresidentziaren edo pisuan geratzearen abantaila eta desabantaila erreparatzeko eskatu. Aipatzen diren abantaila eta desabantailak erresidentziari edo ikasleen pisuari dagozkion identifikatu beharko dute.

Hemen erantzun zuzenak:

Alde txarrak /Alde onak	Erresidentzian	Ikasleen pisuan
Garbitzailea dago		X

Ez da batere garestia		X
Ohea egitea tokatzen zaio	X	
Dena hurbil (gertu) dago		X
Ez du parrandarik egiten	X	
Alkohola debekatua dago	X	

## 2.3 Ez dakit ba!

Amaiak hartuko duen erabakiaren gainean, hipotesia egingo dute: joango ote da pisura? bai/ez? Pista modura, zalantza agertzeko eta proposamena gustatzen zaiola adierazteko bideoan entzundako bi esapide identifikatu beharko dituzte. Hemen erantzunak:

Nola agertzen du Amaiak zalantza?

- **Horrela, bat-batean!**



Amaiari Josuren proposamena gustatu zaio. Nola adierazi du?

- **Aukera ona da**

## 3. IKUSI ONDOREN

### 3.1 Aukera ona da!

Ikasleei adierazi etxe bat alokatu beharrean daudela, eta erabakitzeko zein egoeratan dauden (errealago izan dadin, lehendabizi galdetu ea taldekoren alokairuan bizi (izan) den, eta egoera horretatik abiatu). Egoera-aukerak eman, eta ondoren, alokatzeko pisuak eskaintzen duten hiru iragarki emango dizkiegu. Duten egoerara egokitzen den pisua aukeratzeko eskatuko diegu.

  Behin erabakia hartuta, antzeko elkarrizketak sortu ea ahoz adieraziko dute.

- **Hauxe egokia. Bi logela ditu. Eta Bilbon dago. Dena eskura.**
- **Bai. Gainera ez da oso garestia. Aukera ona da!**

### 3.2 Hauxe guretzako etxea.

Ataza hau bi urratsetan egingo dugu: batetik, bikote bakoitzak hartutako erabakia eta horren arrazoiak azaldu behar ditu. Adibide hau edo tankerakoa eman daiteke:

***Guk Bilboko etxea alokatuko dugu, ez da garestia, nahiko handia da eta gainera, unibertsitatetik gertu dago.***

Bestetik, entzun dutenek, bikote bakoitzak hartu duen erabakia eta emandako arrazoiak azalduko dituzte.

**Material osagarria:** Gaiaren inguruko ataza gehiago kontsultatzeko jo material hauetara:

- ❖ ATAZA: [Etxe bila](#). Maila: A2. Ikasbilen argitaratua. Erreferentzia: 927575
- ❖ AUDIOA: [Etxe bat alokatzen](#). Maila: A1. Ikasbilen argitaratua. Erreferentzia: 1548104
- ❖

## Transkripzioa

AMAIA.- Eta nolakoa da pisua?

JOSU.— Ba ikasleen pisu bat da. Etxea zaharra da, baina oso ondo dago. Eta handia da: bost gela eder ditu, egongela, sukaldea, bi komun... Eta sabaia altua da.

AMAIA.— Ederra ematen du, bai.

ETENA

JOSU.— Bost lagun bizi gara, baina datorren astean batek libre utziko du bere gela.

AMAIA.— Eta denak mutilak, ala mutilak eta neskak?

JOSU.— Ni, beste bi mutil eta bi neska, baina neska bat joan egingo da.

AMAIA.— Hara... Eta? Parranda asko egiten dituzue?

JOSU.— Eeeeeez! Bueeeeno, batzuk... (Amaiak esan duena errepikatuz) Baina “oso gustura nago, hauek ere oso jatorrak dira”.

AMAIA.— Txoraa! Ba... ez dakit. Horrela bat-batean...

JOSU.— Pentsatu, neska! Ez dugu koska egiten.

AMAIA.— Ondo, pentsatuko dut, proposamen polita da.

ETENA

JOSU.— Gainera, ez da garestia: 250 euro hilero, eta garbitzailea daukagu.

AMAIA.— Erresidentzian gehiago ordaintzen dut! Eta ohea egitea tokatzen zait!

JOSU.- Aizu, pisuan ere bai, e! Alferrontzi halakoa! Nahi baduzu, esango dizut nola egin!

AMAIA.— Badakit! Aukera ona da, gainera, pisuan geratzen banaiz, (txantxetan) denbora gehiago izango dut... gela txukuntzeko! (barre egingo dute biek) Dena gertu dago eta!

JOSU.— Horixe, unibertsitatetik liburategira joango gara, eta handik etxera salto batean.

AMAIA.— Ez da plan txarra! Baina pisuan erresidentzian bezala ez banago, bueltatu egingo naiz: han ez dut parrandarik egiten eta alkohola debekatuta dago.

JOSU.— Eta asko ikasten duzu, bai, badakit...

AMAIA.- Bai, bai.